



KUTXA Enplegatuen Elkarte	Xenda-zaletasun atala
114. zka 2. etapa GR-38	Guardia-Lagran 2016/2/13-14

Adiskide mendizaleok:

Aurten “Ardoaren eta Arrainaren Bidearen” bigarren etapa honekin hasiko gara, Guardia/Biasteri eta Lagran herrien artean, iazko martxoan egin baikenuen lehen etapa Oion eta Guardia artean.

Oraingoan Arabako Errioxatik irten eta Toloño edo Kantabriako mendi-lerroaren hesi orografikoa izango dugu aurrean; bide batez "Kanpezu-Arabako Mendialdea Kuadrilla" osatzen duten parajeak ezagutuko ditugu apur bat. La Hoya herrixkatik igaroko gara, bertan dago Euskal Autonomia Erkidegoko Brontze Aroko aztarnategirik garrantzitsuenetakoa; lehen kokalekua K.a. XV. mendekoa da, non Erdialdeko Europatik etorritako indoeuroparrak harremanetan jarri baitziren bertan zeuden kultura megalitikoekin.

K.a. IV. mendean mesetatik iritsitako zeltiberiarrek indarrez sartu eta herrixkaz jabetu ziren, maila handiagoko kultura eta garapena utziz.

Horrek garapen nabarmena ekarri zuen beraiei zegozkien berrikuntza tekniko eta ekonomikoei esker; nekazaritzaren errendimendu handia eragin zuen, eta horrek trukea bultzatu zuen, La Hoya eskualdeko merkataritza- eta antolaketa-gune garrantzitsu bihurtuz. Herrixka bertan behera utzi zuten gutxi gorabehera K.a. III. mendean, ez dakizkigun arrazoiengatik.

Gero, Zezenaren mendatera igoko gara, handik hobeekin direlarik bi aldeetara dauden ikuspegiak. Atseginareagotzeko, esku-eskura izango dugu Peña/Cruz del Castillo (1.432 m) gailurra. Gero jaitsiera polita ipar aldetik Lagran herri txikiraino; Ardoaren eta Arrainaren Bidearen Interpretazio Gunea dago bertan.

Animo, mendizaleok, natura zain dugu eta!!!

Ibilbidea: Guardia/Biasteri-Lagran

Beharrezko denbora	4,30
Goranzko desnibel metatua	668 metro
Beheranzko desnibel metatua	526 metro
Zeharretara egin beharreko distantzia	13.225 metro
 Ingurunea	1
 Orientazioa	1
 Joan-etorria	1
 Esfortzua	3

Irteera-lekua	Bilbo plaza (Bus geroalekua 17/24) eta Pio XII.aren plaza (Bus geroalekua 24/27)
Aurkezteko ordua	07:20 (Bilbo plaza) eta 07:25 (Pio XII.aren plaza)
Irteera-ordua:	07:25 (Pio XII.aren plaza)
Bazkaria	Xxxxxxx jatetxea.
Prezioa	30 euro

Izena emateko azken eguna: 2016-02-11ko 12:00etan

Oharra: a/Ez badago gutxieneko parte-hartzaile kopururik, irteera bertan behera geratuko da.
b/ Eguraldiaren iragarpena txarra izango balitz larunbaterako, igandean egingo litzateke ibilaldia.

Izen-emateak egiteko: Alberto Lahuerta (656-721.208/Senderismodad@gmail.com) eta José Ignacio Acuña (943-31.02.52/joseig15@gmail.com).

DAD/Senderismo/Kutxa/Alberto Lahuerta-José Ignacio Acuña